



■ TURISMO PLANA

Hernani tren berdean ezagutu nahi?

Hiru buelta egingo ditu tren berdeak gaur arratsaldean; aurrez txartela hartu behar da Turismo Bulegoan. 'Hernani, erdi aroa eta sagardoa' planean izena eman dutenek 10:15etan dute zita.

ASTE Santuko jai egunak Hernanin pasatzea erabaki dutenek herriko historia eta txoko pribilegiatuak ezagutzeko aukera ederra dute gaur. Udaleko Turismo Saitetik bi plan proposatu dituzte debalde: bat goizean eta bestea arratsaldean.

Tren berdean, buelta
Bereziki umeei zuzendutako

plana da, arratsalderako proposatu dutena: tren Berdea hartu eta Hernanin barrera buelta egitea. 23 minutu inguruko buelta dela azaldu dute, «paseo polita herriko txokoak ikusi edo ezagutzeko».

Hiru buelta egintgo ditu trenak: 16:45etan eta 17:45etan euskeraz emango dituzte azalpenak; eta 17:15-

etan, gaztelaniaz.

Ibilbidea debalde egiteko aukera jarri badute ere, tren berdera igo aurretik txartela hartu behar dela gogorarazi dute; Turismo bulegoan banatuko dituzte.

Sagardoa eta historia, beste plana

Hernani, erdi aroa eta sagardoa da goizerako Turismo

Bulegoak gaurko proposatutako beste plana. Historiak eta sagardoak bat egiten dute pakete honetan: bisita gidatua erdigunean, tren berdea sagardotegietara eta sagardo dastaketa.

Plana debalde bada ere, parte hartzeko aurrez eman behar zen izena. Apuntatu direnek 10:15etan dute zita, Biteriko turismo gunean. ■

■ GAZTE TXOKOA

'Txindokiko itzala' zuhaitz parkera, irteera

Apirilaren 24an irteera antolatu dute Gazte Txokoan, *Txindokiko Itzala* zuhaitz parkera. 11-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako irteera da eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute Gazte Txokoan.

Prezioa: 5 euro. ■

■ ELIZA

Gurutze Bidea eta lau meza, gaur

Jesusek gurutz hiltzatua izan aurretik egindako bidea gogoratu dute gaur Santa Barbaran egingo duten Gurutze Bidean; 08:30etan. 09:00etan San Antonio elizan ekarriko dute gogora, eta 11:00etan, San Joan Bataiatzailean. Arratsaldean, pasio ospakizuneko lau meza emango dituzte: 18:00etan San Antonion; 18:30etan San Joan Bataiatzailean, 19:00etan Agustinetan; eta 19:30etan San Jose Langilean. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioarik ez, gaur

Hernaniko preso eta iheslarien senideek jakinarazi dutenez, gaur iluntzean ez da kontzentrazioarik izango. ■

■ KIROLDEGIA

Izen ematea, Squash txapelketan

XIX. Squash Txapelketa hastear da Kiroldegian eta parte hartu nahi dutenek maiatzaren 4ra arte dute izena emateko epea zabalik. Informazio gehiagorako: 943 55 21 85. ■

■ ZIKLOBIA

Proposamenak egiteko aukera

Ziklobia egingo da ekainaren 1ean eta motorra duten ibilgai-luentzat itxita egongo da Hernani, Astigarraga, Martutene eta Donostia lotzen dituen errepidea. Udalak egun horretarako proposamenak bilduko ditu apirilaren 25a arte. Horretarako: ziklobia@hernani.net. ■

■ BERTSO ESKOLA

Lagunartea eta bertsolaritza bat eginda, Askizun

Bertso Eskolako gaztetxoek hiru eguneko egonaldia egin dute Zumaia eta Getaria artean dagoen Askizuko aterpetxean; 22 neska-mutilek hartu dute parte aurtengo edizioan.

ASTE Santuaren bueltan, Bertso Eskolako lokaletik atera, eta elkarrekin asteburu pasa joaten dira urtero bertsolari gazteak. Zumaia eta Getaria artean dagoen Askizuko Aterpetxean egin dute aurtengo ere, hiru eguneko egonaldia. 22 bat lagun elkartu dira, ikasle eta irakasle artean.

Lagunartean ondo pasa eta elkar hobeto ezagutzea izaten da helburuetako bat; bestea, bertsotan aritzea. Ikasi eta praktikatu, jo eta su aritu dira hiru egunetan. Izan ere, irakasleek aurrez landu eta prestatutako hainbat ekimenetan hartzen dute parte: jokoak, txapelketa azkarrak... Antolatzaileek egindako balorazioa positiboa izaten da urtero, gazteek eguneroko rutinatik atera, eta bertsotan aritzeko aukera ederra izaten baitute. ■



Bertso eskolako ikasle eta irakasleak, Askizun egindako egonaldian.

AMAI
RANDEGIA
ERREKINTA
ITSASBIZIA
FRESKO ETA
IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

Allianz
ASEGURUAK
bizitza
ietripak
lortuak
etateak
komertzioak
enpreak
andura zibila
finantz asegurak
inbertitzaileak
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Tel.: 943 55 73 28
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

tripontzi
taberna
ARRAIN
FREKKOAREGIN
EGITEN DUGU LAN!
Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala
eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz
jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGURUAK
Kardaberaz 60, Hernani
Tel.: 943 55 43 12
hator@euskaltel.net

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK • Egunez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) 943 336022 • Gaez: Alzpuru Latsunbeberri 11 943 336077

HERNANI INSTITUTUA



Institutuko ikasleak, Hirikilabs programaren barruan parte hartutako tailerrean.

Hiru dimentsiotako inpresora gertutik ezagutzen...

Batxilergoko ikasleak 3D inpresora ari dira garatzen teknologia klasean. Alde praktikoa lantze aldera, bi tailerretan hartu dute parte.

HERNANI Institutuan teoriari bezainbesteko garrantzia ematen diote praktikari. Batxilergoko 1go mailako ikasleak 3D inprimagailua garatzen ari dira Teknologiako klasean. Irakasleen esanetan, helburua da, ikasgaiaren garatu behar diren gaiak modu praktikoa ere lantzea «hortik inpresora propioa garatzearen ideia».

Adituekin harremanetan Institututik haratago, praktika horiek garatze aldera, hainbat tailerretan ari dira parte hartzen ikasleak. Orain gutxi Jose Antonio Lozano adituarekin

«Ikasleentzat interesanteena izan da, klasean garatutako hainbat pieza 3D inpresoran inprimatu ahal izatea. Martxan ikusi dute, eman ditzakeen akatsak aztertu dituzte...»

biltzeko aukera izan zuten Informatika Fakultatean; Elhuyarrek antolatzen duen Zientzia Azokaren harira.

Oraingo honetan berriz, Ikaskidetza Sarearekin jarri dira harremanetan, eta

Hirikilabs programaren barruan, formakuntza tailer bat antolatu dute. Bertan adituen azalpenak jaso dituzte: 3D inprimagailuaren nondik norakoak ezagutu dituzte, eta tartean, funtzionamendua eta martxan ikusteko aukera izan dute. Egindako praktika guztien artean, ikasleentzat interesgarriena izan da, klasean egindako lanak inprimatu ahal izatea: «klasean diseinutako hainbat pieza inprimatu dituzte. Inpresorak, eman ditzakeen arazoak aztertu dituzte... oso interesgarria izan da. Tailer honen esperientzia pilota izan gara»



ERRUGBIA

Hernanik etorkizun oparoa duela erakutsi zuten Hazparnen

Hamabost urtez azpiko Nazioarteko Txapelketa jokatu zen asteburuan Hazparnen. 24 taldek hartu zuten parte, tartean, Hernaniko gazteek. Hamar minutuko sei partidu jokatu zituzten hernaniarrek, eta horietatik 3 irabazi zituzten, bi galdu, eta bat berdindu. Mouguerre taldeak irabazi zuen txapelketa, eta Hernanirrek etorkizuna badutela erakutsi zuten, txapeldunen kontra entsaio baten aldearekin galduta. ||

ESKUBALOIA

500 lagundik gora, eskubaloiaz gozatzen

Estatuko Ohorezko mailara igotzeko azken fasea zuten jokoan lau taldek asteburuan, Hernanin.

GOI mailako eskubaloiaz gozatzeko aukera izan zen asteburuan Kiroldegian. Urdaibai, Musikiz, IES Construcciones eta Usurbil taldeek Estatuko Ohorezko Mailara igotzeko azken fasea izan zuten jokoan asteburuan, emakumezkoen senior mailan. Sei partidu jokatu zituzten; horietatik bi Hernanin eta lau Usurbilen. Igoera fasea igandean bukatu zen, eta Gasteizko IES Construcciones izan zen onena. Bigarren geratu ziren anfitrioiak, usulbildarrak.

«Giro bikaina izan zen»

Hernaniko Eskubaloia Taldea oso pozik dago Kiroldegian izandako giroarekin, eta hala adierazi du Kronikara bidalitako oharrean: «500dik gora lagun bildu ziren goi mailako eskubaloiaz gozatzerako. Giro bikaina izan zen»

Esker hitzak ere jaso dituz-

«Esker hitzak jaso ditugu, bai parte hartu zuten lau taldeenak eta baita federazioarenak ere. Lanean jarraitzeko motibatuta jarraitzen dugu»

te, igoera fasearen antolakuntzan emandako laguntzagatik: «Gure esku zegoen guztia egin genuen laguntzeko, eta zoriondu egin gaituzte. Bai igoera jokatu duten lau taldeak, eta baita federazioak ere. Egiten ari garen lana probintziatik haratago jarraitzen dutela erakutsi ziguten, eta federazioa, besteak beste, hasi dugun bide honetan laguntzeko prest azaldu da. Lan haundia izan bada ere, motibatuta jarraitzen dugu». ||

URUMAKO KRONIKA

Bihar Kronikarik ez

Bihar Larunbat Santu, ez da Urumeako Kronikaren ediziorik izango. Beraz, erredakzioa itxita egongo da gaur arratsaldean; edozein kontsultarako, deitu 943 33 08 99 telefonora. ||

GURE ESKU DAGO

Postua bihar, giza kateko materialarekin

Larunbat goizean postua jarriko du Plaza Berrin 'Gure esku dago' ekimenak. Ekainaren 8ko giza kateko txartelak eta kamisetak salduko dituzte, goizeko 11:00etatik aurrera. ||

ERREMONTEA

Sagardoaren Txapelketako finala atzeratu egin dute datorren larunbatera

Matxin III eta Etxeberria IIIak (Gurutza) eta Etxeberria IV eta Ionek (Bereziartua) bihar zuten jokatzekoa Sagardoaren Txapelketako finala. Etxeberria IIIak ordea, sorbaldeko arazoekin bukatu zuen joan den asteburuan jokaturako finalerdia, eta ondorioz finala atzeratzea erabaki dute. Datorren larunbatean jokatuko da, hilak 26. ||

JOCC ZIKUÑAKO AMA

Legorretara joan-etorria, igandean

JOCC Zikuñako Ama zikloturista taldeak Legorretara egingo du igandeko buelta; 61km. 08:30etan geratu dira, Zinkoenean. ||

IRAGARKI MERKEAK

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**